

Pernando Barrena | Ezker abertzaleko kidea

«Adiskidetzeko bide luzea landu behar da aurretik»

Pernado Barrena (Iruñea, 1965). HBko Mahai Nazionalean 1998an sartu zen. Nafarroako legebiltzarkide izana Euskal Herritarroken izenean. Lizarra-Garaziko eta Loiolako prozesuetan aritutakoa. Batasuneko buru ohia bi aldiz espetxeratua izan da azken urteetan eta baldintzapeko askatasunean dago.

MIKEL ASURMENDI



JOSU SANTESTEBAN

ETAk behin betiko amaitu du jarduera armatua. Zein da zure balorazioa?

Ziklo armatuaren bukaera da, eta horrek elkarrizketa politikoen irekiera ekarri beharko luke derri-gorrez. Gatazka politikoa bere horretan jarraitzen du, beraz, konponbidearen aldeko dinamikari heldu behar zaio Euskal Herriaren aitortza eta erabakitzeko eskubidea bermatze aldera. Horrek desagerraraziko du gatazka behin betiko.

Analista batek "berandu, baina garaiz" idatzi du.

Erabaki hau hausnarketa sakonaren ondorioz heldu zaigu. Ezker abertzaleak bide demokratiko eta baketsuen aldeko apustua orain bi urte egin ondotik. ETAren erabakia Gernikako Akordioaren edukiak eta Aieteko Konferentziaren dokumentuan jasotakoak bultzatu eta babestera dator. Beraz, egokiera guztiz komenigarria da eta berri pozgarritzat hartzen dugu.

ETAk elkarrizketa deia egin die Espainiako eta Frantziako gobernuei gatazkaren ondorioei konponbidea emateko. Nola ikusten duzu aukera hori? Zein epetan?

Jadanik heldu beharko liokete Espainiako eta Frantziako gobernuek ETArekin elkarrizketa esparruari, gatazkaren ondorioen ingurukoak nola bideratu adosteko. Agenda oso garbia da: presoentxeratzea, desmilitarizazioa eta desarmaea.

Nolako jarrera ikusi duzu Espainiako Estatuaren aldetik? Zapaterorena eta Rajoyrena barne.

Entzun diren erreakzio guztietan ahulena Zapate-

rorena izan da. Zapaterok hasiera eman beharko lioke gatazkaren ondorioen ebazpen prozesuari, konponbideari hasiera eman dion presidente bezala historiara pasatu nahi badu. Lan horrekin hasi beharra dauka bere ondoren etorriko den presidente espainolari hasitako konponbidearen oinordetza uzteko.

Prozesu berriaren lehen urratsek zer ekarri beharko lukete? Presoen egoerari irtenbidea ematea? Biktimikiko jarrera lantzea? Gizartearen adiskidetzea?

Adiskidetzea eman dadin bide luzea landu behar da aurretik, eta premiazko neurriak hartu presoentxeratzea eta biktimen aitortzaren inguruan. Preso, errefuxiatu eta klandestino guztiak etxera ekarriko dituen bidea adostu beharra dago gatazkaren armatuaren ondorioei behin betiko itxiera eman nahi bazaio. Modu berean azkeneko 30 urteotan alde guztiek erabilitako bortxakeriaren biktimek merezi duten aitortza-neurriak adostu behar dira. Betiere, lehenengo eta bigarren mailako biktimarik ez dagoela oso garbi izanda.

Nola ikusten duzu euskal gizartea garai eta prozesu berriaren aurrean?

ETAren erabakiak ilusio berriak piztu ditu gizartean, eta bereziki ezker abertzalearen oinarri sozialan, izan ere, irekitzen diren aukerak indar handikoak dira. Ezker Abertzalea gizartearen gehiengoak defendatzen dituen posizioetan kokatuta ikusten dut eta hori oso pozgarria da. ■

